

BILKURAREN AKTA

ACTA DE REUNIÓN

Bilkuraren datuak

Organoa:	Euskararen Nafar Kontseilua		
Bilkura zk.:	2024/1		
Tokia:	Nafarroako Jauregiko erabilera anitzeko aretoa		
Eguna	2024/02/14		
Hasiera ordua:	11:00	Amaiera ordua:	12:25

Datos de la reunión

Órgano:	Consejo Navarro del Euskera		
Nº de sesión:	2024/1		
Lugar:	Sala multiusos del Palacio de Navarra		
Día:	14/02/2024		
Hora de inicio:	11:00	Finalización:	12:25

Bertaratuak

Kontseiluburua	Ana Ollo Hualde	Presidenta
Kontseiluko buruordea	Javier Arakama Urtiaga	Vicepresidente
Kideak	Agurne Gaubeka Erauskin Aingeru Epaltza Ruiz de Alda Ane Sánchez Jiménez Bakartxo Ruiz Jaso David Anaut Peña Idurre Eskisabel Larrañaga Joxerra Olano Etxabe Josu Reparaz Leiza Josune Arévalo Domínguez Inmaculada Jurío Macaya Imanol Nuñez Aldaz Maria Roncesvalles Solana Arana Mikel Arregi Pérez Naiara Ardanaz Iñarga Oskar Zapata Solano Reyes Ilintxeta Jimenez Sagrario Aleman Astiz Xabier Garcia Castell Xabier Erize Etxegarai	Vocales
Idazkaria	Paula Kasares Corrales	Secretaria
Agertu ezina azaldu dutenak	Agurtzane Martínez Ortigosa Orreaga Ibarra Murillo	Excusas su asistencia

Asistentes

Ana Ollo Hualde
Javier Arakama Urtiaga
Agurne Gaubeka Erauskin
Aingeru Epaltza Ruiz de Alda
Ane Sánchez Jiménez
Bakartxo Ruiz Jaso
David Anaut Peña
Idurre Eskisabel Larrañaga
Joxerra Olano Etxabe
Josu Reparaz Leiza
Josune Arévalo Domínguez
Inmaculada Jurío Macaya
Imanol Nuñez Aldaz
Maria Roncesvalles Solana Arana
Mikel Arregi Pérez
Naiara Ardanaz Iñarga
Oskar Zapata Solano
Reyes Ilintxeta Jimenez
Sagrario Aleman Astiz
Xabier Garcia Castell
Xabier Erize Etxegarai

Paula Kasares Corrales

Secretaria

Excusas su asistencia

Gai zerrenda

1. Euskararen Nafar Kontseiluko osaera berria: ongi etorria eta esker ona.
2. Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunaren aplikazioaren VI. ebaluazio aldean, Europako Kontseiluko Adituen batzordearen bisita.
3. Merezimenduen gaineko Foru Dekretua.
4. Departamentuen hizkuntza planak.
5. Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren 2024 urteko aurrekontuak.
6. Euskararen Nafar Kontseiluaren barnean sortzen hedabideen lan batzordearen berri eman.
7. Aurreko bileran proposatu ziren gaien inguruko erantzunak.
8. Galde-eskaerak.

Eztabaidak eta erabakiak

1. Euskararen Nafar Kontseiluko osaera berria: ongi etorria eta esker ona.

Ana Ollo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari andreak Euskararen Nafar Kontseiluko kideak agurtu ditu. Eskerrak eman dizkie kideei parte hartzeagatik eta Kontseiluaren osaera berriaren laburpena egin du. Kideek beren burua aurkeztu dute.

2. Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunaren aplikazioaren VI. ebaluazio aldean, Europako Kontseiluko Adituen batzordearen bisita.

Ana Ollo kontseilariak Europako Kontseiluko

Orden del día

1. Nueva composición del Consejo Navarro del Euskera: bienvenida y agradecimiento.
2. Visita del Comité de Expertos del Consejo de Europa en el VI periodo de evaluación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias.
3. Decreto Foral de Méritos.
4. Planes lingüísticos departamentales.
5. Presupuestos del organismo autónomo Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera para el año 2024.
6. Informar sobre la comisión de trabajo del Consejo Navarro del Euskera para tratar la situación de los medios de comunicación.
7. Respuestas a las cuestiones propuestas en la reunión anterior.
8. Ruegos y preguntas.

Deliberaciones y acuerdos

1. Nueva composición del Consejo Navarro del Euskera: bienvenida y agradecimiento.

La Sra. Ana Ollo, Consejera de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera, saluda a los y las miembros del Consejo Navarro del Euskera. Agradece su participación y hace un resumen de la nueva composición del Consejo. Los miembros se presentan a sí mismos.

2. Visita del Comité de Expertos del Consejo de Europa en el VI periodo de evaluación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias.

La Consejera Ana Ollo informa sobre la visita a

Adituen batzordeak 2024ko urtarrilaren 18an Iruñera egindako bisitaren berri eman du. Adituen batzordeko ordezkariak hauek izan ziren: Albert Branchadell (Bartzelonako Unibertsitate Autonomokoa), René de Groot (Maastricht Unibertsitatekoa), Aline Kunz (Bern Unibertsitatekoa), Jarmo Lainio (Stockholm Unibertsitatekoa) eta Maxime Huot (Europako Kontseiluko).

Adituak euskararen arloan diharduten zenbait gizarte erakunderen eta erakunde publikoren ordezkariekin ez ezik, Nafarroako Gobernuaren ordezkariekin ere bildu ziren. Gobernuaren ordezkariatiko, Ollo kontseilari andreak berak eta Jabi Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzaleak parte-hartu zuten. Europako Kontseiluko Adituek Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna Estatuan aplikatzearen gaineko jarraipenaren VI. ebaluazio aldia (2017-2021) egin behar dute eta Nafarroara egindako bisitan Itunaren konpromisoak euskarari dagokiarik betetzen ote diren informazioa biltzea izan dute xede.

Ana Ollo kontseilariak Euskarabideko zuzendari kudeatzaileri eman dio hitza xehetasunak eman ditzan. Arakama jaunak ebaluazio aldiko prozesua laburtuko du: Euskarabideak Espainiako Lurralde Politiketako Ministerioari Nafarroako Gobernuaren txostena bidali zion eta, ondoren, 2023an, Espainiako Gobernuak berea osatu eta aurkeztu zuen. Bilera Itunaren 8 artikuluetako konpromisoak betetze mailan oinarritu zen.

Adituek honako gaiez egin zituzten galderak: ezagutzaren eta erabileren bilakaeraz, Euskaren I. Plan Estrategikoaz eta haren ebaluazioaz, Euskaren II. Plan Estrategikoa onartu ez izanaren arrazoiez, euskarari ematen zaion aurrekontuaz, D ikastereduaren hedapenaz, A ikastereduaren egoeraz, Nafarroako Gobernuko departamentuetako hizkuntza planez, merezimenduen (euskara jakitea barne dela) araudiaz, bai eta euskara sustatzeko erkidegoen arteko eta mugaz gaindiko hitzarmenez ere.

Pamplona del Comité de Expertos del Consejo de Europa, realizada el 18 de enero de 2024. La Comisión de expertos y expertas estuvo representada por: Albert Branchadell (Universitat Autònoma de Barcelona), René de Groot (Maastricht University), Aline Kunz (University of Bern), Jarmo Lainio (Stockholm University) y Maxime Huot (Conseil de l'Europe / Council of Europe).

Los expertos y expertas se reunieron, además de con representantes de algunas entidades sociales y públicas que trabajan en el ámbito del euskera, también con representantes del Gobierno de Navarra: la consejera Ollo y el director gerente de Euskarabidea, Jabi Arakama. Los expertos del Consejo de Europa deben realizar un informe sobre la aplicación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias en el Estado en el VI período de evaluación (2017-2021), y en su visita a Navarra han tenido como objetivo recoger información sobre el cumplimiento de los compromisos de la Carta en lo que respecta al euskera.

La Consejera Ana Ollo cede la palabra a Javier Arakama, director gerente de Euskarabidea, para que dé los detalles oportunos. El Sr. Arakama resume el proceso de evaluación: Euskarabidea remitió al Ministerio de Política Territorial el informe del Gobierno de Navarra y, posteriormente, en 2023, el Gobierno de España redactó y presentó el suyo. La reunión se basó en el cumplimiento de los compromisos recogidos en el artículo 8 de la Carta.

Los expertos y expertas realizaron consultas sobre las siguientes cuestiones: la evolución del conocimiento y del uso del euskera, el I Plan Estratégico del euskera y su evaluación, la razón de la no aprobación del II. Plan Estratégico, el presupuesto destinado al euskera, la extensión del modelo D, la situación del modelo A, los planes lingüísticos de los departamentos del Gobierno de Navarra, la normativa de méritos (incluido el conocimiento del euskera), así como los convenios intercomunitarios y transfronterizos para la promoción del euskera.

Arakama jaunak aipatu txostenak Euskarabidearen webgunean eskuragai daudela jakinarazi du eta bigarren txostena udarako espero dela.

Gobernuaren ordezkarien azalpenak akiturik, Ollo kontseilariak kontseilukideei hitza hartzeko aukera eman die:

Agurne Gaubeka Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendari andreak administrazio publikoetako informazio faltagatik adituek adierazi zioten kezka azaldu du.

Arakama jaunak nabarmendu du adituek ebaluazio aldiko epearri (2017-2021 urte tarteari) zegokiona baino ez zutela jasotzen.

3. Merezimenduen gaineko Foru Dekretua

Ana Ollo kontseilariak merezimenduen gaineko arauaren prozeduraren berri eman du. Arauaren proiektua Nafarroako Kontseiluari igorri zaio txostena egin dezan eta irizpenaren zain dago. Otsailaren bukaerarako txostena egina egotea espero da eta, behin hala egonez gero, Foru Dekretua onetsi ahal izanen da.

Bakartxo Ruiz andreak prozeduraren atzeratzeaz galdegirik du. Orobak, gaineratu du 2019ko Foru Dekretuak merezimenduak bakarrik hartzen dituela aintzat, 2017koak aldiz, ez; beraz, galdetu du ea 2017an ezarri zirenek indarrean jarraituko duten, toki entitateei eragiten zien artikulu batzuk baliogabetu baitziren. Ana Ollo Kontseilariak erantzuten dio 2019ko dekretuak Foru Administrazioari eragiten diola esanez, baina ez toki entitateei.

Sagrario Aleman andreak, arauaren proiektuak Kontseilu honetan aurkeztu eta kontrako txostena jaso ondoren, zer aldaketa izan duen galdegirik du eta zein den Kontseilu honen eginkizuna eta haren iritzia nora iristen diren.

El Sr. Arakama informa que los citados informes están disponibles en la web de Euskarabidea y que el segundo informe previsiblemente se publicará para el verano.

Concluidas las explicaciones de los representantes del Gobierno, la Consejera Ollo da la oportunidad de intervenir a los y las miembros del Consejo:

La Sra. Agurne Gaubeka, directora del Observatorio de Derechos Lingüísticos, informa de la inquietud que, sobre la falta de información de las Administraciones Públicas, le transmitieron los expertos.

El Sr. Arakama destaca que los expertos sólo recogían lo correspondiente al periodo de evaluación (2017-2021).

3. Decreto Foral de Méritos

La Consejera Ana Ollo da cuenta del procedimiento de la norma de méritos. El proyecto de norma ha sido remitido al Consejo de Navarra para su informe y se encuentra pendiente de dictamen. Se espera que para finales de febrero esté elaborado el informe y, en su caso, se pueda aprobar el Decreto Foral.

La Sra. Bakartxo Ruiz pregunta sobre la demora en el procedimiento. Asimismo, añade que el Decreto Foral de 2019 sólo contempla méritos, mientras que el de 2017 no, por lo que pregunta si lo que se estableció en 2017 seguirá vigente, ya que se anularon algunos artículos que afectaban a las entidades locales. La Consejera Ana Ollo responde que el decreto 2019 afecta a la Administración Foral, pero no a las entidades locales.

La Sra. Sagrario Aleman, pregunta sobre la modificación realizada en el proyecto de la norma, tras presentarla en este Consejo y recibir informe desfavorable, y sobre la función de este Consejo y el alcance de sus opiniones.

Ildo beretik, Agurne Gaubeka andreak galdetu du kalkulatu ote den, 2019tik epaileek baliogabetu zituzten artikuluak bertan behera gelditzetik eta prozedura luzatu den denbora honetan guztian, zenbat deialdi eta lanpostutan euskara ez den baloratu, eta bai, aldiz, atzerriko hizkuntzak.

Ana Ollo kontseilariak azaldu du aurreko legealdian merezimenduen gainean adostasunik ez zegoela eta, nahiz saiatu, ez zela lortu. Diskriminazioa dago, ados da, baina Gaubeka andreak eskatutako datuak ez dituela aipatu du.

Aleman andreatzari erantzunez, azaldu du Kontseilu honen iritza ez dela loteslea, bai eta gogorarazi ere merituen Foru Dekretua Funtzio Publikoaren araua dela eta euskara jakiteari eman beharreko merituak ez ezik, bestelako merituak ere jasotzen direla.

Arakama jaunak Gaubeka andreatzari erantzun dio. Batetik, azaldu du ez dakiela zehazki zenbat lanpostu atera diren, baina eremu mistoan euskara jakitea normaltasunez baloratzen dela 2022tik, dekretu berriak ezartzen duen puntuaziona aintzat hartuz. Bestalde, azaldu du 2019ko epaiak esaten duela hainbat puntu espezialitatearen arabera nola baloratu behar diren. Atzerriko hizkuntzekin gauza bera eginen da eta zehatztuko da zeinetan baloratuko diren.

Agurne Gaubeka andreak azaldu du egonkortzetik haratago egiten ari diren deialdietan euskara ez dela baloratzen. Gaineratu du Euskarabideak honen gaineko irakurketa egin beharko lukeela, zein ondorio dituen eta zenbat lanposturi eragiten dion argitzeko. Arakama jaunak erantzun dio esanez Euskarabidea egoeraren jabe dela.

4. Departamentuen hizkuntza planak

Arakama jaunak marko juridikoaren errepasoa egin du eta gaur egungo egoera zertan den azaldu

En este sentido, la Sra. Agurne Gaubeka pregunta si se ha calculado en cuántas convocatorias y puestos de trabajo, desde 2019 cuando algunos artículos quedaron anulados por los jueces y durante todo el periodo en el que se ha alargado este procedimiento, no se ha valorado el euskera, y en cambio, sí se han valorado las lenguas extranjeras.

La Consejera Ana Ollo explica que en la pasada legislatura no había acuerdo sobre los méritos y que, pese a intentarlo, no se consiguió. Hay discriminación, está de acuerdo, pero explica que no tiene los datos que ha solicitado la Sra. Gaubeka.

En respuesta a la Sra. Aleman, explica que la opinión de este Consejo no es vinculante, y recuerda que el Decreto Foral de méritos es una norma de Función Pública y que, además de los méritos para el conocimiento del euskera, se recogen otros méritos.

El Sr. Arakama responde a la Sra. Gaubeka. Por un lado, explica que no sabe exactamente cuántas plazas han salido, pero que en la zona mixta el conocimiento del euskera se valora con normalidad desde 2022, teniendo en cuenta la puntuación que establece el nuevo Decreto. Por otra parte, explica que la sentencia de 2019 dice cómo se deben valorar determinados puntos en función de la especialidad. Lo mismo se hará con las lenguas extranjeras y se especificará en cuáles se valorarán.

La Sra. Agurne Gaubeka explica que en las convocatorias que se están realizando aparte de la estabilización, el euskera no se valora. Añade que Euskarabidea debería hacer una lectura al respecto para aclarar sus consecuencias y el número de puestos de trabajo afectados. El Sr. Arakama responde que Euskarabidea es consciente de la situación.

4. Planes lingüísticos departamentales

El Sr. Arakama hace un repaso del marco jurídico y explica la situación actual: se enviaron cartas a

du: departamento guzietara gutunak bidali ziren, kontseilari bakoitzak bere departamentuko planak eta lanpostuen zerrenda sina zitzan. Funtzio Publikoaren esku utziko dira foru agindu hauek eta Mahai Orokorrera eramanen dira, sindikatuek iritzia eman dezaten. Asmoa uda aurretik prozesua bukatzea da.

Joxerra Olano jaunak galdegin du ea sindikatuen iritzia loteslea den. Arakama jaunak ezetz erantzun dio, iritzia jasotzen dela, baina proposamena aldatzea Funtzio Publikoaren eskumena dela.

Bakartxo Ruiz andreak aipatu duenez, langileen hizkuntza gaitasunaren berri ematea aurreko planen ebaluazioan eta ondorioetan jorratu den ildo estrategikoa da. Oraindik orain ez dugu datu horien berri eta ezagutzeko bideak ezarri behar dira. Bestetik, aipatu du, ebaluazioan dauden datuak ikusita, 2019tik hona, trámite elektronikoei dagokienez, Hezkuntza Departamentuan eta Osasunbidean oso urrats txikiak egin direla. Departamentu hauetan urrats handiagoak egitea bultzatzeko aukera ote dagoen galdetu du. Departamentuetan itzulpenen eskaera ia bikoiztu da eta horrek Euskarabideari nola eragin dion galdegin du.

Dabid Anaut jauna bilerara batu da 11:50ean.

Arakama jaunak erantzun dio esanez helburua departamentuetatik zuzenean euskaraz erantzutea dela. Horren ondotik, planen ebaluazioan dauden trámites electrónicos buruzko zenbait datu ematen du eta, ondoriotako, datuek lehen esandakoa berresten dutela gehitu du, hau da: asko falta bada ere, franko aurreratu dela.

Langileen euskararen ezagutzari dagokionez, txostenean jaso bezala, datuak ezagutzeko zaitasun handiak zeuden. Moduak badaude, baina, oro har, sindikatuek ez dute egoki ikusten, langileak seinalatuta sentituko direlakoan. Momentu honetan ez dugu atal bakoitzean euskaraz nork dakien jakiteko modu eraginkorrik.

todos los departamentos para que cada consejero firmara los planes de su departamento y la relación de puestos de trabajo. Las presentes Ordenes Forales se pondrán a disposición de Función Pública y se trasladarán a la Mesa General para que las organizaciones sindicales se pronuncien. La intención es finalizar el proceso antes del verano.

El Sr. Joxerra Olano pregunta si la opinión sindical es vinculante. El Sr. Arakama responde que no, que se recoge la opinión, pero que modificar la propuesta es competencia de la Función Pública.

La Sra. Bakartxo Ruiz señala que conocer la competencia lingüística del personal es una línea estratégica que se ha abordado en la evaluación y conclusiones de planes anteriores. Todavía no conocemos estos datos y hay que establecer medios para conocerlos. Por otra parte, afirma que, a la vista de los datos que constan en la evaluación, parece que desde 2019 se han dado pocos pasos en lo que respecta a los trámites electrónicos en el Departamento de Educación y en Osasunbidea. Pregunta si se puede impulsar hacer más avances en estos departamentos. Prácticamente se ha duplicado la solicitud de traducciones en los departamentos y pregunta cómo ha afectado a Euskarabidea.

El Sr. Dabid Anaut se incorpora a la reunión a las 11:50 horas.

El Sr. Arakama responde que el objetivo es contestar directamente en euskera desde los departamentos. Tras ello, aporta algunos datos sobre los trámites electrónicos existentes en la evaluación de los planes y concluye que los datos confirman lo dicho anteriormente, es decir, que, aunque falta mucho, se ha avanzado mucho.

En cuanto al conocimiento del euskera del personal, tal y como se recoge en el informe, existían dificultades importantes para conocer los datos. Hay formas para ello pero, en general, los sindicatos no lo ven adecuado, los y las trabajadores pueden sentirse señalados. En este momento no tenemos una manera eficaz de saber quién sabe euskera en cada sección.

5. Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren 2024 urteko aurrekontuak.

Ana Ollo kontseilariak azaldu du aurrekontuak Parlamentuan eztabaidatzen ari direla eta, oraindik behin betiko daturik izan ezean, erratea bada euskararen erabilera eta sustapenera bideratutako partiden handitza esanguratsua izanen dela.

Euskarabideak arreta berezia jarri du funtsezko hiru arlotan:

- Helduen irakaskuntzan: doakotasunerako joerari eutsi, ikasleei eta euskaltegiei diruz lagunduz. Aurrekontuak handitu dira.
- Gazteria, hezkuntza, komunikabideak eta teknologia berriak. Oro har, diru sail horiek departamentuetako batez bestekoa baino askoz gehiago handitu dira.
- Arlo sozioekonomikoa: egitasmo batzuk landuko dira, hala nola, euskaraz barra-barra ekimena, euskara langai jardunaldia eta enpresen foroa.

Aurrekontua % 8,3 handitu da, 7,9 milioi euro, Parlamentuko bideratzean gerta litzkeen emendakinen kalterik gabe.

Sagrario Aleman andreak esan du azken 3 urteetan Euskaltzaindiaren partida ez dela handitu. Arakama jaunak erantzun dio 2024an mantentzen dela. Ana Ollo kontseilariak azpimarratu du lehentasunak hiru arlotan daudela, baina helburua zenbait gauza finkatzea dela, haien artean, Euskaltzaindiarekiko hitzarmena.

Maria Solana andreak azaldu duenez, alde batetik, Departamentuak berak egindako proiektua dago eta, beste aldetik, Parlamentuak eginen dituen ekarpenak. Euskarabidearn aurrekontuak gora eginen duela aipatu du.

5. Presupuestos del organismo autónomo Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera para el año 2024.

La Consejera Ana Ollo explica que se están debatiendo los presupuestos en el Parlamento y aunque todavía no se dispone de datos definitivos, se puede decir que el incremento de las partidas destinadas al uso y promoción del euskera será significativo.

Euskarabidea ha prestado especial atención a tres áreas fundamentales:

- En la enseñanza de personas adultas: mantener la tendencia hacia la gratuidad subvencionando a estudiantes y euskaltegis. Se han incrementado los presupuestos.
- Juventud, educación, medios de comunicación y nuevas tecnologías. En general, estas partidas han aumentado mucho más que la media de los departamentos.
- Ámbito socioeconómico: se trabajarán proyectos como la iniciativa "Euskaraz barra-barra", la jornada "Euskaraz langai" y el foro de empresas.

El presupuesto se ha incrementado en un 8,3 %, 7,9 millones de euros, sin perjuicio de las enmiendas que pudieran producirse en la tramitación parlamentaria.

La Sra. Sagrario Aleman señala que en los últimos 3 años la partida de Euskaltzaindia no ha aumentado. El Sr. Arakama le responde que se mantiene en 2024. La Consejera Ana Ollo subraya que las prioridades están en tres ámbitos, pero que el objetivo es asentar algunas cosas, entre ellas el convenio con Euskaltzaindia.

La Sra. María Solana explica que por un lado está el proyecto elaborado por el propio Departamento y, por otro, las aportaciones que va a hacer el Parlamento. Dice que el presupuesto de Euskarabidea aumentará.

6. Euskararen Nafar Kontseiluaren barnean sortu zen hedabideen lan batzordearen berri eman.

Ana Ollo kontseilaria Javier Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzaileri eman dio hitza Euskararen Nafar Kontseiluaren barnean sortu zen hedabideen lan batzordearen berri eman dezan:

Batzorde horren sorreraren aurrekariak hizpidera ekarri du Arakama jaunak: Euskararen Foru Legeak, 27. artikuluan, Administrazio Publikoek komunikabide sozialetan euskara sustatuko dutela eta, horretarako, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko dituela ezartzen du. Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2008ko maiatzaren 14ko Erabakiaren bidez Euskararen Nafar Kontseiluaren funtzionamendu Erregelamendua onetsi zuen eta 10. artikuluan berariazko batzordeak sortzeko aukera jasota dago.

Hori horrela, 2022ko irailean, Nafarroako euskarazko hedabideen beharrak identifikatzeko Euskararen Nafar Kontseiluan lanketa tekniko bat egitea egoki ikusi zen, eta lanketa hori gauzatzeko Kontseiluaren barnean lan batzorde bat sortzeko proposamena egin zen, gero, batzordeak lanketa hori Euskararen Nafar Kontseiluari aurkez ziezaion; eta Kontseiluak egoki joz gero, Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari helarazteko.

2022ko irailaren 16ko bilkuran, Euskararen Nafar Kontseiluak hedabideen lan batzordea sortzea erabaki zuen eta kontseilukideei batzorde horretan parte-hartzeko aukera eman zitzaien.

Hedabideen lan batzordea Euskararen Nafar Kontseiluko kide diren batzuek eta kide ez diren beste partaide batzuek osaturik dago.

2023ko udazkenean Euskarabideak Elhuyar enpresarekin Euskararen Nafar Kontseiluaren barneko Hedabideen lan batzordearen gogoeta bideratzeko eta dokumentu batean biltzeko lan

6. Informar sobre la comisión de trabajo del Consejo Navarro del Euskera para tratar la situación de los medios de comunicación.

La Consejera Ana Ollo cede la palabra a Javier Arakama, director gerente de Euskarabidea, para que informe de la comisión de trabajo de medios de comunicación creada en el seno del Consejo Navarro del Euskera:

El Sr. Arakama expone los antecedentes de la creación de esta comisión. La Ley Foral del Euskera, en su artículo 27, establece que las Administraciones Públicas promoverán el euskera en los medios de comunicación social y, a tal efecto, el Gobierno de Navarra elaborará planes de apoyo económico y material. Por otra parte, el Gobierno de Navarra, mediante Acuerdo de 14 de mayo de 2008, aprobó el Reglamento de funcionamiento del Consejo Navarro del Euskera, recogiendo en su artículo 10 la posibilidad de crear comisiones específicas.

Así, en septiembre de 2022, se consideró oportuno realizar un trabajo técnico en el Consejo Navarro del Euskera para identificar las necesidades de los medios de comunicación en euskera de Navarra, y para llevarlo a cabo se propuso la creación de una comisión de trabajo en el seno del Consejo, para posteriormente, presentar el trabajo al Consejo Navarro del Euskera, y si el Consejo lo viese adecuado, al Gobierno y al Parlamento de Navarra.

En la sesión celebrada el 16 de septiembre de 2022, el Consejo Navarro del Euskera acordó la creación de la comisión de trabajo de medios de comunicación, a la que se dio participación a los miembros del consejo.

La comisión de trabajo de los medios de comunicación está formada por miembros del Consejo Navarro del Euskera y otros participantes que no son miembros del mismo.

Euskarabidea ha acordado en otoño de 2023 con la empresa Elhuyar el trabajo técnico necesario para orientar y recopilar en un documento la reflexión de la comisión de trabajo de los Medios

teknikoa adostu zuen.

Lanketa ekainean bukatuko da eta emaitzak Euskararen Nafar Kontseiluari aurkezten ahalko zaizkio Sanferminak baino lehen.

7. Aurreko bileran proposatu ziren gaien inguruko erantzunak.

Ana Ollo Kontseilariak Javier Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzaileri eman dio hitza eta honek aurreko bileran proposatu ziren gai batzuk erantzunen dituela azaldu du:

- Bide-seinaleak: Espainiako Ministerioak du bide-seinaleen gaineko eskudunza eta ardura. Etorkizunean Nafarroako Gobernuak eskudunza izatea negoziatzen ari dira bi gobernuak.
- 2023an egindako kampainen balorazio osorik egiteko oraindik datu aski ez dago.
- Zizur Nagusiko Udalaren kontrako epaiaz, Euskarabideak txosten juridikoa eskatu du eta gaia aztertzen ari da egoera horri erantzun aproposa eman ahal izateko. Ondoren, lantalde bat martxan jarriko da. Eskudunza udalek dutenez, Euskarabidearen lana laguntzea izanen da. Garrantzitsua da Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin lan egitea.

Agurne Gaubeka andreak, Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren izenean, bide-seinaleen gaiaren harira, gogorarazi du aurreko bilera batean aipatu zela, A-68az gaindi ere, euskarazko izena onartua duten hainbat udalerrietan gaztelania hutsezko seinaleak daudela eta Behatokiak horiek zuzentzeko galdetu duenean, seinaleak zahartu arte ez direla berrituko erantzun zaiola. Horren ondotik, Arakama jaunak azaldu du AP-15aren inguruan ere galdegin zela eta, momentuz, ez dela erantzunik jaso.

de Comunicación del Consejo Navarro del Euskera.

La elaboración se realizará en el mes de junio y sus resultados podrán ser presentados al Consejo Navarro del Euskera antes de Sanfermines.

7. Respuestas a las cuestiones propuestas en la reunión anterior.

La Consejera Ana Ollo cede la palabra a Javier Arakama, Director Gerente de Euskarabidea, quien da respuesta a algunas de las cuestiones planteadas en la reunión anterior:

- Señalización viaria: Corresponde al Ministerio de España la competencia y responsabilidad sobre la señalización viaria. Se está negociando que, en el futuro, la competencia sea del Gobierno de Navarra.
- Todavía no hay datos suficientes para hacer una valoración completa de las campañas realizadas en 2023.
- En sentencia desfavorable del Ayuntamiento de Zizur Mayor, Euskarabidea ha solicitado informe jurídico y está estudiando la cuestión para dar una respuesta adecuada a esta situación. Posteriormente se pondrá en marcha un grupo de trabajo. Al ser competencia de los Ayuntamientos, la labor de Euskarabidea será de apoyo. Es importante trabajar con la Federación Navarra de Municipios y Concejos.

La Sra. Agurne Gaubeka, en nombre de Hizkuntz Eskubideen Behatokia / Observatorio de Derechos Lingüísticos, en relación con la señalización viaria, recuerda que en una reunión anterior se comentó que, a parte de la A-68, en varios municipios con nombre en euskera reconocido, existen señales exclusivamente en castellano y que cuando Behatokia solicita su corrección, se le responde que no se renovarán hasta su deterioro. A continuación, el Sr. Arakama explica que también se preguntó por la AP-15 y que, por el momento, no se ha recibido respuesta.

Joxerra Olano jaunak bi gai ekarri ditu: batetik, Euskararen Nafar Kontseiluan ofizialtasunaren inguruan onartu zen adierazpenak zein bide egin duen galdetu du; eta bestetik, herri ekimeneko euskaltegietako datuak Euskarabidearen esku daudela eta Hezkuntza Departamentuko datuak, aldiz, falta direla azaldu du. Ana Ollo kontseilaria erantzun dio ofizialtasunaren dokumentua Parlamentuan dagoela, baina Gobernutik desadostasuna dagoela.

Olano jaunak, aipatu desadostasunez, berriz galdegin du agintaldi honetan hori gainditzeko zantzurik ikusten ote den.

Inma Jurio andreak hitza hartu du argibidea eskatzeko, desadostasunak gainditzeaz edo ofizialtasunaz ari den galdetuz eta hau azaldu du: ofizialtasunaren dokumentua Parlamentura iritsi zela eta horren aldeko jendea badago, baina borondate politikoa falta da. Gaineratu du PSN ez dagoela euskara Nafarroa osoan ofizial egitearen alde. Ezagutzeo eta erabiltzeko eskubidean alde dago eta aurrera egitea eta horretan elkar ulertzea positiboa da.

Maria Solana andreak azaldu du ez dagoela nahikoa boto Euskararen Foru Legea aldatzeko. Orobak, erantsi du giltza Parlamentuaren osaeran dagoela.

Olano jaunak giltza botoetan eta lehentasun politikoetan dagoela aipatu du.

Solana andreak zehaztu du lehentasun politikoak oso argi daudela.

Sagrario Aleman andreak gehitu du, ondorioz, nafar guztien eskubideak errespetatzea borondate politikoaren esku dagoela eta tristea dela, baina afera politikoa dela ikusten duela, oso argi.

8. Galde-eskaerak

Aztertu beharreko beste gairik ezean, Ana Ollo kontseilaria, nork bere jarrerarekin, baina Kontseiluak euskararen alde lan egitea dela

El Sr. Joxerra Olano plantea dos cuestiones: por un lado, pregunta sobre el camino realizado por la declaración de oficialidad aprobada en el Consejo Navarro del Euskera, y por otro, dice que los datos de los euskaltegis de iniciativa pública están en manos de Euskarabidea y que faltan datos del Departamento de Educación. La Consejera Ana Ollo responde que el documento de oficialidad está en el Parlamento, pero que hay discrepancia desde el Gobierno.

El Sr. Olano, vuelve a preguntar si en esta legislatura se observan indicios para superar el desacuerdo mencionado.

La Sra. Inma Jurío toma la palabra para solicitar aclaración sobre si se refiere a la superación de discrepancias o a la oficialidad, y explica: el documento de oficialidad llegó al Parlamento y hay quien lo apoya, pero falta voluntad política. Añade que el PSN no está a favor de que el euskera sea oficial en toda Navarra. Está a favor del derecho a conocerlo y usarlo. Avanzar y entenderse en ello es positivo.

La Sra. María Solana expone que no hay suficientes votos para modificar la Ley Foral del Euskera. Añade que la llave está en la composición del Parlamento.

El Sr. Olano comenta que la llave está en los votos y en las prioridades políticas.

La Sra. Solana puntualiza que las prioridades políticas están muy claras.

La Sra. Sagrario Aleman añade que, en consecuencia, el respeto a los derechos de toda la población navarra depende de la voluntad política y es triste, pero ve que es un asunto político, muy claro.

8. Ruegos y preguntas

Sin más temas que tratar, la Sra. Consejera, Ana Ollo recalca que lo importante es que, aunque cada miembro desde su posición, el Consejo

garrantzitsua nabarmenduz eta kontseilukideei parte-hartzea eskertuz, bilkura bukatutzat eman du 12:25 direlarik.

trabaje por el euskera, y siendo las 12:25 horas, da la reunión por concluida.

Iruñean, 2024ko otsailaren 22an. / En Pamplona, a 22 de febrero de 2024.

Kontseiluko idazkaria / La secretaria del Consejo